

TUTORETZA OSAGARRIA EPAITEGIETAN DEFENDATZEN

Orain bi aste igorri genizuen infoan jakinarazi genizuen LABek lan gatazka sartu zuela Gizarte Ekiemeneko EAEko hitzarmen kolektiboko 65.artikuluko tutoretza osagarria patronalak errekonozitzen ez dutela eta patronalei hori ordaintzeko exijitzeko .

Aste honetan izan dugu Bizkaiko Lan Harremanetarako Kontseiluan (LHK) adiskidetze saioa patronalekin aurrez- aurre eta hauek bere horretan jarraitzen dute; sinatu bai baina ostean oker bat izan zela esanez, eskubide hori Haur Hezkuntzako 1. ziklo eta Lanbide Heziketako langileoi ez zaigu aitortu.

Horretaz gain, bertan enteratu ginen Kristau Eskolak eta AICE-IZEAk eurek sinatutako lan hitzarmeneko 65. artikulua aldatzeko asmoarekin epaitegira eraman gaituztela.

LABek ez du amore emango tutoretza osagarria Gizarte Ekimeneko ikastetxe guztietan aitortzen dela ziurtatu arte. Hori dela eta, hurrengo hitzordua azaroaren 16an izango dugu Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenean. Alde batetik epaitegi barruan izango gara langileen eskubideak defendatzen eta bestetik baita kalean ere; mobilizazioa deituko dugulako egun horretarako!

Beraz, azaroaren 16an epaitegietan aurrez- aurre izango gaituzte berriro patronalek, langileen eskubideen defentsan.

Honen inguruko informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan gurekin hurrengo telefonoetan: 666 77 80 35 Araba eta Bizkaia. 674 09 44 66 Gipuzkoa

ANIMO ETA AURRERA!